

**Espedientearen kodea:** 2022KH010001  
**Espedientearen gaia:** 2021eko aurrekontuaren Likidazioa  
**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## DEKRETUA

## DEKRETUA

Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz.

Toki-Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ondorengo

### ERABAKI DUT

**Lehena.-** Udal honen 2021eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2021-12-31n:		9.147.650,04
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		5.889.464,79
Aurrekontuko zordunak :	5.868.930,88	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	20.533,91	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2021-12-31n:		1.696.088,88
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	785.629,88	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	910.459,00	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		13.341.025,95
5.- Saldo kobragaitzak:		3.193.694,97
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		71.950,11
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		10.075.380,87

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.431.117,35
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-92.859,96
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	3.984.035,27
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-62.585,20



OIARTZUNGO  
UDALA

5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):

5.259.707,46

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	2.979.042,39
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	13.791.638,62
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	16.770.681,01

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Alkate-Udalburu jaunak agintzen eta sinatzen du, Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Alkatea

Elektronikoki sinatua

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)

EUSKAL HERRIA 



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe7f8c862-4c74-4e3b-91fc-47bc5c2c4d55**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022KH010001-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)